

## ALANGO 1

Hemen bertan dago Getxoko kalerik laburrena; Orobio kalea. Orobio edo ahoz "Oromiño" Amorebieta-Etxanoko auzoa da; Durango eta Iurretatik hurbil.

Gaur plaza den honetan, etxea zegoen, "**Limakoren** etxea" toponimoa ezizen bat da; Liman ibili zen baten etxea adierazten zuen. Etxe hori bota zutenean, espazioa aprobetxatu zuten kalea sortzeko.

Gero "**Caza bar**". Sortu zuen jabea ehiztari amorratua zen. Kuriositate moduan, esan behar da joskera "bar Caza" jartzea izan behar zela baina kakofonia bat geratzen da eta "Caza bar" jarri zuen.

"Caza bar" tabernaren atzean dagoen etxea, Algortako etxe tipiko bat da; **Kareaga** du izena eta Barakaldoko kapitain batek eraikia da 1804an eta bertako auzoa "Kareaga" izena jarri zion; ez da beraz abizen bat. Marinel horrek berak **Casino Algorteko** eraikitzeko lurrak opari egin zituen

## ALANGO 2

Dokumentazio zaharrean badakigu **Saratistegi** agertzen dela eta beharbada **sahatsa** izeneko zuhaitzarekin lotura izango du. Sarats+tegi.

Toponimoa sortzeko forma nahi arraroa da. Toponimoak sortzeko mekanika bat egoten da eta kasu honetan ez du ematen oso arrunta denik; amaierako "-tegi" horrek edukia da lekua esan nahi du eta edo etxeak, **Sarastegi** edo antzekoren bat izan beharko luke; agian **Saratastegi**.

Ez da toponimo garbia baina logikarik gehien duen hipotesiak esaten du normalena Saratistegi Sarastitegi hitzetik etortzea dela eta hemendik **Satistegi**. Betiere **sahatsa** zuhaitzarekin lotua; fitonimo bat izango litzateke.

Badago beste teoria bat ere: zabortegeiaren sinonimoa izatea; XX. mende hasierako fraide batek **Saratistegi** deitzen dio " donde las basuras" izan ere "**satsa**" zaborra edo animalien hondakinak adierazteko erabiltzen da; kasu horretan saratistegia, gaztelaniazko "estercolero"ren sinonimoa izango litzateke. Dena den, hau ameskeria da; ezin da zaborrarekin lotu toponimoa; baliteke XX. mendean erabilera hori izana baina izena askoz zaharragoa da eta ez du horrek azaltzen.

Mundu guztiak **Satistegi** plaza bezala ezagutzen duen arren, izen hori ez da existitzen Getxoko kaletegian. Hori jartzea adostu zen baina ez dago onarpen ofizialik.

Basagoiti, lehen esan dugu **Tetuan** izan zela eta "**Calzada Mayor**" "**Camino Real**" ere deitu izan zaio dokumentazioan. Bertokoek, ostera, "**Kaltzada**" deitu zioten eta momentu batetik aurrera, Antonio Basagoitiren omenez "**Basagoiti etorbidea**" izatera pasatu zen.

## ALANGO 3

Urkijo abizenetik etorriko dela pentsatzen da; XIX. mendearen erdialdean agertzen da segur aski Ereagara doan maldari aipamena egiteko; **Urkixobaso**; nolabait Urkixo abizeneko norbaiten basoa; agian agintariren bat.

Urkijo berez Urkixu izan behar zen euskaraz eta **-xu** hori erromatzeari zor zaio. Abizenaren jatorria Orozkoko dorretxe bat da; dorretxea botata dago baina abizena Aiara aldera zabaldua zegoen ordurako.

Ezizenek eta umoreak ere funtzionatu izan du toponimoak sortzekoa. Algortan ere "**malzapatariena**" izeneko etxea zegoen; inork ez lioke gaur egun bere etxeari horrela deituko. Urkixobasorekin ez dauka zerikusirik baina Lope Garcia Salazarrek "Bienandanzas e fortunas" erdiaroko liburuan "marques de Ozpin" deitzen dio Urkixo bati eta justifikatzen du "Y le llamaban ozpin que en vascuenze significa vinagre por su caracter"

#### ALANGO 4

Etxearen izena **Bidekurtze** da. Etxe honen eta **Kareagaren** etxearen artean, gaur egungo plazan zegoen **Limako** etxea; horrela deitua Liman egon zen ugazabagatik. Antzinako galtzada edo bide nagusia **Basagoiti** kaleak markatzen duena da, Galtzada zahar hau Basagoiti etorbidetik zetorren, **Portu Zaharrera** jaisten zen jatorrizko Casino Algortekoaren albotik (gaurkoaren atzetik) eta gero berriro igo eta Andra Marira zihoan; hori zen gurdiek egiten zuten ibilbidea.

Galtzada honek izan zuen lehen "saihesbidea" Satistegitik San Nikolaserakoa zen; hau da, gaur egungo Basagoiti etorbidea jarraitzea.

Garai batean **Tetuan** eta **Tanger** izena izan zuen kale honek; izen hauek, goitik jarritako lehen izenak izan ziren eta Españako gerra kolonialak gogorarazteko egin zen; propaganda egiteko jarritako kale izenak dira; ohitura hau Frantziako iraultzarekin hasi zen eta XIX. mendearen amaieretan heldu zen hona.

Urte luzetan jarraitu izan den ohitura bat da; agintzen dagoenak, momentuko interesengatik, berari ondo datorkion izena jartzen dio kale edo plaza bati; Alfontso XII.ena, Sabino Arana, Franco, Indalecio Prieto...adibide ugari dago.

Hemendik hurbil Maria Cristina erreginaren plaza. Ez dakigu ondo zein erreginaren omenezkoa den, izen horretako erregina bi egon baitira eta bata ez bestea ez baitute Getxorekin inolako harremanik izan. Hala ere, izen horretako plaza dago hemen eta kalea Areetan.

#### ALANGO 5

**Alango** plazan, etxeetako batek San Joanen irudia du garai batean jaialdi handiak egiten zirelako plaza honetan San Juan egunean. Antza denez, etxea egiten ari zirela, hemengo jendeak dirua bildu zuen San Joanen irudi bat egin eta fatxadan jartzeko.

Gaur egun BM denda dagoen lekuan eskola egon zan errepublika denboran. (Ikus Getxoko leku izenak toponimia liburuaren azala). Argazki zahar horretan, eskolaren alboan oraindik baserri-etxeak ere ikusten dira.

Alango izena oso zaharra dala ematen du; IX. mendearen aurrekoa. Alango Etxea plaza honetan zegoen, gaur egun BM denda dagoen lekuan. Izenak esaten duenez,

"Alan" izeneko pertsona baten etxea zen; hortik dator toponimoa: Alan+icus (jabetza atzizkia).

Kuriosoa da, **-icus** atzizki hori erabiltzen denetan, herrien izenak sortzen direla: (Beranicus-Berango; Turanicus-Durango... ) eta Alango ere izan zitekeen Getxoren edo Algortaren izena baina ez zuen izan Berangok edo Durangok izan duten ibilbidea. Bestelako bidea izan zuen toponimoak; Erdi Aroan, goialde hau guztia Alango moduan ezagutzen zen; izan ere Getxok zati bi zituen, bata eliza edo parrokiaren gunea, **Getxo** deitutakoa eta bestea gunea hau, **Alango**. Esan dezakegu Alango izenak porrot egin duela herri-izen modura.

Goia alde hau marinelez eta Portu Zaharreko jendez betetzen hasi zenean eta batez ere 1909an San Nikolas plazan dagoen eliza parrokia bihurtu zenean, aurretik **Alango** zen goialde hau, **Algorta** bihurtzen hasi zen. Etxe baten izena zenak, bere auzoaren izena jan zuen.

Jatorrizko **Alango** gunea oso handia zen; Fadurako biribilgunetik gora (**Iturribarri**) eta gaur egungo **Bidezabaleraino** eta horrek toponimia txikia ere ugari sortzea ekarri du: **Alangoeta**, **Alangobarri** eta abar.

Hemengo kaleen izenak jatorrizko baserrien izenak dira askotan: **Martikoena**, **Txiskiena**, **Arkotxa**...jabearen ezizen edo deituratik etorritako izenak dira. XVIII. mendera arte sistema deskribatzaileagoak nagusitu ziren toponimoak sortzeko orduan (adibidez **Atxekolandeta**) baina sasoi honetatik aurrera eta batez ere populazioaren gorakadak eraginda izenak sortzeko sistema aldatu egin zen eta jabe batekin lotzera jo zuten; adibidez **Martikoena**, Martintxo+ena da; **Txiskiena**, Txiskia deitutako norbaitena; **Arkotxa** ezin da izan deitura bat sasoi horretan hemen ez zelako abizen horretako inor bizi; norbaiten ezizena izan ahal zen Arkotxa, (kumerik izan ezin duen txerri emea da) edo Urdulizen dagoen baserri batetik etorritako norbaitek ekarri ahal zuen.

Toponimoek, askotan kronologia bat eskaintzen digute; hori da Oikonimoekin pasatzen dena (Pertsona izenak)

- 1- Izendapen askea (**Alango**, **Algorta**) XVI. mendera arte.
- 2- Etxearen inguruan (**barria**, **goikoa**, **ostaikoa**) XVII.
- 3- **-ena** atzizkia. (**Martikoena**, **Txiskiena**...) XVIII
- 4- Erdalduntzea (etxe izen zaharrak, jabearen izena-**edo**, **-ena** ahul) XIX
- 5- Jabeak jarritako izena. XX

Plaza honetan dago Ortuño Alangoren omenez egindako monumentua edo harria. Portugaleten bertakoa zela esaten duten arren (Kalea ere badu), hemengoa zen, Alango etxekoa eta kapitaina izan zen 1525ean Moluketara joan zen bigarren espedizioan. Espedizio horretan hil zen Elkano.

## ALANGO 6

Gaur egungo **Euskal Herria** kalean kokatzen gara, nahiko behean, **Alangoeta** kalearen bidegurutzean. Kale-izen politikoaren adibide ona da kale honen izena; Jatorrian **Luis Urresti** deitzen zen kalea, sasoi politiko bat kontuan hartuta baina inori gustatzen ez zitzaion edo, **Hispanidad** izena jarri zioten ondoren. Kalea igogailua dagoen tokian amaitzen zen, hor horma zegoen eta Algortara sartzeko beste bide bat erabiltzen zen. Diktaduraren ondoren, izen frankistak kendu edo aldatzeko prozesuan Hispanidad kaleari **Euskal Herria** jarri zioten.

Arrazoi politiko argiengatik jarritako kale-izena izan arren, berez, Euskal Herria hitza kulturala da; lehenengo aipua Lazarragaren edo eta Leizarragaren idatzietan agertzen da XVI. mendean

Inguru hau **Arana** edo **Arane** moduan ere ezagutzen da. Bizkaian ohikoa da Arana izena; eta Arane horren ondorengoa da Bizkaia gehienez bezala; Arane esan behar da eta Arana idatzi. Ahozko forma errotulatu zenean, 80an, ahozko bertsioa hartu zen. Kale izenen zerrenda horretan, Getxon ahozko forma asko dago; toponimo asko jarri ziren 80an eta asko ahozko forma mantenduz.

Areneren azken -e horrek badauka herriko beste toponimo batzuetan ere isla; adibidez **Barinatxe**; berez **Barinatx** izan beharko litzateke baina herriko ahoskerak -e bokala gehitzea eskatzen du; kasu bera **Zabala**, **Zabale** bihurtzen dena; kasu bera Ibarra, **Iberre** bihurtzen dena.

Udaltzainen etxearen aurrea jarraituta Harrobia; **Aiboa**: Herri basoetan zeudenez edonork atera ahal zuen hortik harria etxea egiteko, handitzeko edo konpontzeko. Gauza bera gertatzen zen teilekin: teilan ere publikoak ziren eta norbait kontratatzen zen teilak egiteko. Aiboako kantera hori **Kantarepe** bihurtzen da hemen, taberna izena ere bada.

Kaleei pertsona izenak jartzearen inguruko bitxikeria bat. Udaltzainen etxea baino apur bat gorago, "**Marques del Real Socorro**" izeneko kalea dago. Javier Camporen esanetan, kalea, Algortan jaiotako itsasgizon bati eskainitakoa da: Agustin Sainz de Inchaurtegui hain zuzen ere. Kontua da, 1971ean titulu hau beretzat eskatu zuela Alicia Koplowitz enpresariak eta epaiketa irabazi ostean beretzat eta bere familiarentzat geratu dela titulua; beraz, ondorioztatu dezakegu Alicia Koplowitzek kalea duela Getxon.

## ALANGO 7

**Txakursolo** kalea dago beheago. Bereiz, **Txakurzulo** izan behar zen, hor bizi zen emakumea Urdulizko Txakurzulotik etorria zenez, horko baserriari Txakurzulo deitzen hasi ziren eta baserri horretatik dator kalearen izena; hala ere, norbaiti, zinegotziren bati edo "zulo" hori ez zitzaion gustatzen eta proposatu zuen "**solo**" amaitzea eta horregatik gaur egun kalearen izena "Txakursolo" da. Txakurzuloa oletan edo burdinoletan dagoen zuloa da; baita etxe biren artean dagoen zuloa, pasabidea ere eta gaztelanierazko "gatera" ere "Katuzuloa" da.

**Fadura** generikoa da beraz, latinetik dator, Paludismo ere hortik dator urez betetzen den gunea esan nahi du, ez du zertan itsasoa izan behar. Hitz generiko batek zelan egiten dituen izenak azaltzeko balio du; **Faduratik Fadurazo, Fadureta**...eta gero latinetik etorritako izenak zelan geure egin ditugun normaltasunez azaltzeko ere adibide oso ona da.

Fadurako gunea hori lanerako tokia zen artotzak, ortuak, ehiza gunea ere bazen, ahateak ehizatze tokia ere izan zen. **Bolue** deitzea nahiko berria da; erreka izena da **Bolue** eta berez tokiaren izena **Fadura** da.

Bolua eta errotaren aldeko diferentzia; toponimia zaharretan "bolue" ikusten da batez ere eta errotak modernoagoak dira; bata gaztelanierazko "Aceña" zen eta bestea "Molino"; bata ardatz horizontala (boluak, haize errotak) eta besteak bertikala (errotak) dutelako bereizten ziren; horrez gain, Boluak ur gutxiago behar du bere lana egiteko, ez zuten behar antapararik, indarra zuzenean momentuko korrontetik hartzen zuten; horrek esan nahi du urak indar nahikorik ez zeramanean ezin zutela

lanik egin. Berez, ez dira zertan etxeak izan behar, hasieran lantokia baino ez, askotan errota bat zuten txabolak ziren, inor ez zen bertan bizi.

Biak latinetik datozen hitzak dira; "Bolua", Molinum hitzetik dator eta "errota" latinezko rota-tik.

**Baserría auzoa:** Horrela deitzen zaio **Larrañazubi** errekaaren ibar osoari; **Santa Koloma** auzoaren inguru guztiari. Baserriaren jatorrizko esanahia gordetzen da termino honetan; izan ere **baserri** hitzaren jatorrizko esanahia gaztelaniazko "El Campo" da eta hau vs "**Uria**", "**Herria**" "la **Ciudad**". Baserría da uria ez dena; XX. mendean "baserría" etxeari deitzeko erabiltzen hasi ziren.

Martiarturako azken baserría **Esesumaga** da eta horrek abizen bi eman ditu Getxon: Esesumaga eta Sesumaga. E-z hasten direnetan gertatzen dira horrelakoak.

Baserrí auzoan zer esanik ez baina Getxo osoan ere ugariak dira landareetatik eratortzen diren toponimoak:

**Salsidu** (Salce/salse 'sahatsa')+du(i)a: Sahatsak dauden lekua.

**Lexarreta:** lexar+eta: Lizarrak (leixarrak-lizarrak-lexarrak) dauden lekua.

**Makaleta:** Makal+eta: Makalak (txopoak) dauden lekua.

**Aretxeta:** Aretx+eta: haritzak dauden lekua.

**Saratsaga:** Sahats+aga: Sahatsak dauden lekua. Sauces.

**Arteaga:** Arte+aga: Arteak dauden lekua. Encinas.

Horrelako toponimia sortzeko **-AGA**, **-ETA** eta **-TZA** atzizkiak erabiltzen dira batez ere

**-AGA**, gaur egungo -ak pluralgilearekin dago lotuta. Umeak > \*umeak+(e)i > \*umeaga+ei > umeei. Dena dela, badirudi zaharragoa dela ahostuna (sonora): -aga > \*-ag > -ak

**-ETA**, gaur egungo deklinabide markekin lotura estua du: (ugaritasuna adierazteko)

HARRI-AK. Nora zoaz? HARRIETARA. Non zaudete? HARRIETAN.

Azkenean lekua Harrieta > Arrieta. Areeta...

**-TZA**, Hondartza: Playa, arenal. Hondar+tza. Jendetza, papertza... Artatza, Arte+tza: Arte (encina) edo Artelatz (alcornoque) ugari dagoen lekua